


Balorezko proposamena



Ikasle bezala dugun esperientziaren arabera, badakigu, emandako tresnak ez datozela bat eskatutako ikasketa efizientziarekin. Ondorioz, ikasle asko aplikazio desberdinak instalatu beharra dute haien produktibitatea handitzeko, hala nola, hobeto antolatzeko, arreta mantzetzeko eta emaitza akademikoak hobetzeko aplikazioak. Gainera, ikasle

asko apunteak hartzen arazoak dituzte. Horregatik sarean apunteak bilatzen edo lagun bati eskatzeko egoeran aurkitzen gara.

Eskatzen denaren gutxi azaltzen da klasean, eta azterketetan zailenen artean aurkitzen diren ariketak sartzen dira; honen ondorioz, jende askok, nahiz eta asko ikasi, nahiko nota kaskarrak ateratzen dituzte. Hau dela eta, behar diren gai guztien azalpen zabalak eta ariketen ebazpenak ikasleen menpe uztea erabaki dugu.



Ikertu dugun webguneen antolaketak oso kaotikoak direla iruditzen zaigu, apunteak biltzen dituztelako baina antolatzeko sistemarik ez dutelako. Horregatik, bezeroa gure zerbitzua erabiltzeko prest egongo zen, erraztasun gehiago izango zuelako nahi duten motatako apunteak lortzeko zuzenki ordaindu gabe.

Gure zerbitzuan apunteak ordenatuta egotea, beharrezko apunte guztiak aurkitzea eta erosotasuna eskaintzea bermatzen dugu. Helburua Hezkuntzan iraultza bat egitea da, ikasleen eguneroko bizitza errazteko.